



**LAUDIO  
UDALA**  
AYUNTAMIENTO  
DE LLODIO



# Kultura

# Plan Estrategikoa

## Laudio 2025

# Edukien aurkibidea



01. Sarrera

02. Laudioko kulturaren AMIA partekatua

03. Kulturaren erronkak

04. Laudioko estrategia kulturala

05. Ekimenen egutegia

06. Gobernantza eta jarraipena

07.

== Introducción ==

Laudion kulturaren alde diharduten eragile desberdinek azken urteotan bideratutako prozesu desberdinen emaitza da Laudio 2025 Kultura Plan Estrategikoa, orriotan jaso duguna, hain zuzen ere. Plana egiteko hausnarketa- eta prestakuntza-lanak ezin dira ulertu banakako lan legez; aitzitik, azken urteotan bideratutako prozesu zabalago baten emaitza da honako hau.

Prozesu horiei esker, udalerriko sektore kulturala indartzeko landu behar diren elementuak nahiz aspektuak identifikatu eta adostu dira. Planaren bi helburu nagusietan zehazten da hori guztia:

Alde batetik, udal kudeaketa kulturala hobetzea, herritarren beharretara egokitutako politika kultural planifikatu, elkarbanatu, bizi eta koordinatu bat oinarri legez hartuta.

Bestetik, Laudio kulturaren esparruan diharduten eragile publiko eta pribatuen batasuna sendotzea, sektore kultural laudioarra finkatu eta aberasteko beharrezko alderdia den heinean.

Horrez gain, testuinguru horretan beharrezkoa da kontuan hartzea kultura laudioarrari ere gizartearen erronka eta behar nagusiek eragiten diotela, gainerakoei bezalaxe: Aldaketa demografikoak, erronka ekonomikoak, gizarte-eraldaketak, hiri-garapeneko prozesuak, eta abarrek eragin zuzena dutela kulturaren eskaintzan nahiz eskarian. Horregatik guztiagatik, une honetan inoiz baino beharrezkoagoa da kulturaren zeharkako ikuspegia edukitzea, eragile ugari kontuan hartuko dituen; nahitaezko baldintza da eragile publiko zein pribatu desberdinak garapen kulturean inplikatzeko eredu kultural berria, eta, azken batean, gizarte-eredu berria bermatu ahal izateko.

Ondorioz, Laudioko lehenengo Kultura Plan Estrategiko hau ez da neurri desberdinak (egiturazko izaera edo izaera estrategikoa dutenak zein izaera operatibokoak) jasotzeko dokumentu hutsa; horrez gain, eredu kultural berria eraikitzeko abiapuntua eta oinarria izateko xedea ere badu. Ondorioz, dokumentu bizia da eta emankizunen nahiz ekintzen programazio batetik abiatzen da, sektoreak berak aukera izan dezan horiek etengabeki ebaluatu eta berriz planifikatzeko, zehaztutako helburuak erdieste aldera.


Laudioko Kultura Plan Estrategiko honen aplikazio-esparruak barne hartzen ditu udalerrian ditugun diziplina edo joera artistikoak, eta estrategia amankomuna definitzen du horietan eragiteko, dela orokorki, dela diziplina edo joera horietako bat edo gehiagorako modu espezifikoan :




**Irakurketa  
eta literatura**



**Musika**



**Ikus-  
entzunezkoak**



**Arte  
plastikoak**



**Arte  
eszenikoak**



**Jaiak eta herri  
kultura**

**Irakurmena eta literatura:** idazketari, narratibari, poesiari edota berbei erreferentzia egiten dioten edota berbak tresna gisa erabiltzen dituzten hitz-adierazpenezko beste arte-formak.

**Musika:** kultura musikalaren forma guztiak barnebiltzen ditu, esaterako, abestea, konposizioa, orkestrak, lirika, etab.

**Ikus-entzunezkoak:** Ikusizko eta entzunezko elementuak integratzen dituzten proposamenak dira, adibidez, zinema, dokumentalak, telebista, bideo-jokoak, web diseinua, etab.

**Arte plastikoak:** eraldatu edota moldatu daitezkeen materialez sortutako arte-lanei egiten die erreferentzia, hau da, pinturari, eskulturari, grabatuei, zeramikari, artisautzari eta enparauei.

**Arte eszenikoak:** Agertoki batean egin daitezkeen edozein adierazpen forma hartzen du barne, esaterako, antzerkia, dantza, zirkua, magia eta antzeko ikuskizunak.

**Jaiak eta herri kultura:** diziplina honen barruan bildu dira udalerriko idiosinkrasiaren berezko adierazpen kulturalak, adibidez, jai- edota gizarte-ekitaldiak, ondarearekin eta tradizioekin lotutako jarduerak, etab.

02.

Laudioko  
kulturaren AMIA  
partekatua

# 02.

## Laudioko kulturaren AMIA partekatua

Azken urteotan, zenbait ekimen bideratu dituzte Laudio Udalak eta udalerriko eragile kulturalak Laudioko kulturaren egoera zertan den aztertzeko, eta modu adostuan bideratu ere, etorkizunerako estrategiaren oinarri gisa. Besteak beste, hauek azpimarra daitezke:

- *Laudioko kulturaren uneko egoeraren diagnostiko partizipatiboa (2014)*
- *Laudioko ekosistema kulturalaren mapatzea (2016-2017)*
- *Kultura Plan Estrategikoa prestatzeko lan-jardunaldiak elkarte eta herritarrekin (2021)*

Ekimen horiek eta beste zenbait (esaterako, 2020an egindako *Laudioko auzuneetako bizi-kalitateari buruzko inkestak*) erabili dira AMIA eraikitzeko oinarritzat, baita Laudio udalerriak kulturaren arloan datozen urteotan izango dituen erronkak identifikatzeko.



### Kulturaren ahulguneak Laudion

- Politika kulturalari dagokienez, orientazio orokorra falta da, hala Udalaren ikuspuntutik, nola eragile soziokulturalen ikuspuntutik: identitate kulturalik ez udalerrri gisa.
- Plangintza eskasa eta Laudioko material nahiz espazio kulturalen aprobetxamendu txarra. Erreferentzia-espazioen falta.
- Azpiegitura kulturalak egoera kaskarrean daude oro har, eta, beraz, beharrezkoa da kultura hartzen duten edo har lezaketan espazio horietako batzuk eraberritzea.
- Ez dago Udalaren eta talde kulturalen artean partekatutako plangintzarik jarduera kulturalari dagokienez, ezta taldeen artean ere, eta horrek bikoiztasunak, ordutegi gainjarriak eta abarrak eragiten ditu.
- Laudioko kulturari buruzko informazio eta komunikazio falta; jarduera kulturalari buruzko informazioa ez zaio iristen helburu-publikoari.
- Herritar gutxi joan ohi dira udalerrian antolatzen diren programa kulturaletara.
- Publikoa erakartzeko gaitasuna duten "erreferentziazko" jarduera kulturalak falta dira.
- Programa kulturalak gehiegi sektorializatu dira, eta, ondorioz, badirudi jarduera kulturalak programatzen dituzten eragile desberdinek herritar talde zehatzentzat egiten dutela.



## Kulturaren indarguneak Laudion

---

- Elkarte kulturelek mendekotasun handiegia dute Laudio Udalarekiko, txikiak direlako eta baliabide tekniko propio urriak dituztelako.
- Komunikazio eta ulermen falta Udalaren eta talde kulturalen artean, baita taldeen artean ere.
- Kultura-ehunak parte hartzeko dauzkan formulak agortuak daude.
- Eragile soziokultural guztiek borondatea dute udalerriko kultura garatzeko.



## Kulturarako mehatxuak Laudion

---

- Laudioko dinamika politiko eta sozialaren konplexutasunak zaildu egiten du udalerrian epe luzerako proiektu bat eraikitzeko kulturaren gaineko ikuspegi integratu eta adostua lortzea.
- Belaunaldien arteko etena; beharrezkoa da herriko gazteak Laudioko kulturaren inplikazioa.
- Lotura onak ditugu Bilbo eta beste zenbait polo kulturekiko, eta, horren ondorioz, kultura-kontsumitzaileek alde egiteko arriskua dago.
- Talde soziokulturelek mesfidantza dute erakundeekiko.



## Oportunidades para la cultura en Laudio

---

- Udalaz gaindiko babes instituzionalak eta pribatuak bilatzen dira Laudioko kultura bultzatzeko.
- Antzokia eraikitzea Laudiorako azpiegitura kultural estrategiko gisa.
- Kultura Etxea berritzea eta Lamuza parkea Laudioko espazio kultural legez hartzea.
- Laudio inguruko beste udalerrietako publikoa erakartzea, eskualdeko buru garelako eta lotura onak ditugula aprobetxatuta.
- Laudion figura kulturalak dauzkagu hainbat arlotan (literatura, zinema, etab.), eta Laudioko kultura-preskribatzaile gisa jardun dezakete.
- Jarduera kulturei lotutako beste sektore batzuekiko elkarlana (kirol taldeak, talde sozialak, etab.), sinergiak sortzeko.
- Teknologia berriak aprobetxatzea kultura sustatu eta gazteengana gerturatzeko.
- Udalaren eta talde kulturalen arteko harremana hobetzea: izapideak sinpletzea, komunikazioa sarriagoa eta zuzenagoa izatea, etab.



03.

Kulturaren  
erronkak

Diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta, Laudioko kulturak dauzkan erronka nagusiak zerrendatuko dira jarraian, epe ertain eta luzera begirako estrategia bat taxutu beharko baita horiei erantzuteko. Hortaz, Kultura Plan Estrategikoaren bidez erdietsi nahi diren helburu nagusiak ere badira erronka horiek.

## RETO 1

**Kulturaren arloko elkarteen ehun laudioarra indartzea, hazi eta finkatzeko behar dituzten baliabideak hornituta, eta Laudioko identitate kulturalaren nahiz landu beharreko kultura-ereduaren inguruko kontsentsu politikoan eta soziokulturalean oinarrituta.**

## RETO 2

**Laudioko sormen-gaitasuna eta sorkuntza-lana aldezte, berrikuntza kultural irekia sustatuta, eta gure sortzaileen aldeko apustua eginda herritarrei nahi den eredu kulturala transmititzeko.**

## RETO 3

**Programazio kulturala aberastea, diziplina berriak eta kalitatezko programak erantsita, erreferentziazko jardueraz hornituta eta laudioarren eskaeretara egokituta.**

## RETO 4

**Kultura herritarrei zabaltzea, jarduera kulturalen inguruko informazioa hobetuta, kultura-konsumoa sustatuta eta pertsona guztientzat irigarria dela ziurtatuta.**

## RETO 5

**Azpiegitura kulturalak egokitzea eta moldatzea, taldeen nahiz herritarren aprobetxamendua optimizatuta.**

04.

Estrategia  
kulturala



---

---

*Laudioko sektore kulturalaren AMIA azterlanari gehitu zaizkion elementuen abiapuntua izan da sektoreko eragileei beraiek egindako hausnarketa, zeinak helburu gisa izan baitu Laudioko kulturaren inguruko adostasuna lortzea eta diagnostiko partizipatiboa egitea.*

*Testuinguru horretan, sektoreak berak definitu ditu kulturaren arloko erronkak zein estrategia, eta, beraz, Udalarena ezik, Laudioko Kultura osoarena den plan hau sortu da, talde kulturalak, erreferentziazko pertsonak eta herritarrak inplikaturak horren definizioan, abiaraztean eta ebaluazioan.*


---

---







# 04.

## Estrategia cultural

Laudioko Kultura Plan Estrategikoaren oinarrian jarraian ageri den eskema metodologikoa dago, eta horren gainean egin beharko da lan datozen urteotan Laudioko errealitatea islatuko duen eredu kultural egonkorra eraikitzeko:



### Zer balore edota atributuk gidatuko dute Laudioko estrategia kulturala?

-  **Lankidetz**  
Eredu kultural irekia, zeinetan garapen kulturalarekin lotutako eragile publiko eta pribatuek ideiak adierazi eta eraikuntzan nahiz eboluzioan parte hartu ahalko duten. Ideiekiko errespetuan eta parte-hartze aktibo eraikitzailean oinarritutako eredu da.
-  **Dibertsitatea eta pluraltasuna**  
Laudion kultura egiten eta kontsumitzen duten kolektibo desberdinen beharrak eta iritziak kontuan hartuko dituen eredu kulturala, pluraltasunean eta kolektibo sozial desberdinetan ardaztua.
-  **Bertokoa**  
Gurearen alde egiten duen eredu kulturala: geure artistak, sortzaileak, taldeak, erakundeak, etab. Tokikoak babestuko dituen eredu, Laudion ehun kultural desberdin eta sendoa garatzeko.
-  **Eraldatzailea**  
Gizartea eraldatzeko gai izango den eredu kulturala, berdintasunaren, gizarte-kohesioaren eta ekologiaren aldeko apustua eginda eta gure eskualdeak etorkizunean izango dituen erronkak bistatik galdu gabe.
-  **Euskalduna**  
Euskara, kultura eta euskal identitatea bultzatzeko balioko duen eredu kulturala.
-  **Erakargarria**  
Eredu kultural erakargarri eta erakartzailea, gure herriak eskualdeko buru legez garapen kulturalerako duen papera indartuta.

Lanerako 5 ardtaz  
Laudioko eredu  
kulturala eraikitzeko



**EKOSISTEMA KULTURAL  
EGITURATUA**



**BERTOKO SORKUNTZA  
KULTURALA**



**KALITATEZKO  
PROGRAMAZIO  
IREKIA**



**KOMUNIKAZIO ETA  
KONTSUMO  
KULTURALA**



**AZPIEGITURA  
KULTURALAK**



### EKOSISTEMA KULTURAL EGITURATUA

Helburua da udalerriko eragile kultural publiko nahiz pribatuek modu koordinatu eta kohesionatuan lan egitea lortzea, egitura sendoak, lan-espazio partekatuek eta dinamika egonkorak sortuta.

#### *Lantzeko zenbait proiektu...*

##### **Kultura Kontseilu Sektoriala**

Laudioren garapen kulturala ardatz izango duen kontseilu sektoriala eratzea, zeinetan udalerriko eragile kultural publiko eta pribatuek ordezkariak izango baitute.

##### **Jaien Kontseilu Sektoriala**

Jaietako egungo lantaldea birformulatzea, sanrokeen garapenean diharduten eragile esanguratsuenek osatuko duten eta parte-hartzeari irekiago egongo den kontsulta organo bat sortuta.

##### **Elkarte eta eragile kulturalen laguntzeko bulegoa**

Elkarte eta talde kulturalen laguntza teknikoa eta aholkua emateko ardura hartuko duen udal zerbitzu bat martxan jartzea, euren egiturak indartzeko baliabide gisa.

##### **Dirulaguntzen eredu berrikustea**

Eragile kulturalekin batera eta partizipatiboki hausnartzea elkarteak eta taldeak finantzatzeko eredu optimoari buruz, eredurik egokiena aurkitzeko.

##### **Talde kulturalen direktoria**

Udal webgunean espazio bat sortzea Laudion kulturaren alorrean diharduten elkarten eta taldeen direktoria ipintzeko, eta, horren bidez, eragileak identifikatu ahal izateko, bakoitzak bideratzen duen jardueraren azalpenaz eta abarrez lagunduta.



## BERTOKO SORKUNTZA KULTURALA

Lortu nahi den helburua da udalerriko sormen eta sorkuntza kulturala sustatzea, gure talde kulturalen aldeko apustua eginda eta Laudio sortzen diren proiektu kultural eta sorkuntza berriei lagunduta.

### Lantzeko zenbait proiektu...

#### Kultura- eta sormen-berrikuntza irekia

Ideien lehiaketak eta berrikuntzarako beste zenbait formula martxan jartzea programa eta ekimen kulturalak definitzeko eta bestelako udal zerbitzuak eskaintzeko.

#### Sorkuntza-fabrika eta kulturen ikastegia

Aztertzea baterako sorkuntza kulturalerako espazio bat martxan jartzea bideragarria ote den; proiektu kulturalak sortzeko ideien laborategi gisa balioko luke espazio horrek eta, gainera, kulturaren esparru desberdinetan prestakuntza emateko aukera ere emango luke.

#### Programa preskriptoreekin

Laudioko kulturako preskribatzaile eta *influencer*-ekin lankidetzan aritzeko programa bat martxan jartzea, udalerraren garapen kulturalen inplikatu daitezten.

#### Ekintzaile kulturalari laguntzea

Ekintzaileek kulturaren alorrean abiarazten dituzten proiektuak finantzatzeko lerro edo lote espezifiko bat martxan jartzea, tokiko sektore bat sortzen laguntzeko helburuaz.

#### Bertoko sortzaileen foroa

Laudioko sortzaileen eta enpresa kulturalen direktorio bat sortzea, eta euren lanari daukan balioa aitortzea eta egiten dutenaren berri emanda, udal hedabideetan (elkarrizketak, etab.).

#### Tailer kulturalak

Herritarrek prestakuntza kulturalari dagokionez dituzten eskaerei buruzko azterlana egitea tailer eta prestakuntza-ekintza berriak martxan jartzeko bide gisa.





## PROGRAMAZIO IREKIA ETA KALITATEZKOA

**Lortu nahi den helburua da programazio kultural ireki eta irisgarria sortzea, audioarren gustuetara egokitua, askotarikoa eta diziplina desberdinak barne hartuko dituena.**

### *Lantzeko zenbait proiektu...*

#### **Hiruhileko programazio kulturala**

Udalerrirako jarduera kulturalen hiruhileko programa egitea, diziplina artistiko desberdinetako ekitaldi publiko zein pribatuak jasota, eta eskaintza plurala eta askotarikoa bermatuta.

#### **Jai eredu berria**

Jaien eredu berrikustea (sanrokeak eta beste zenbait jai), parte hartzeak leku handiagoa izan dezan, irekiak eta kalitatezkoak izan daitezen, askotariko jarduerak eskainita denei.

#### **Publikoen azterlanak**

Laudioko jarduera kultural desberdinetako publikoen azterlan bat egitea, bertaratzen diren pertsonen profila ezagutzeko, eta, horrela, herritarren nahietara egokituago dagoen programazio bat sortzeko.

#### **Figura berria: kultura kudeatzailea**

Udal egituraren barruan Kultura kudeatzailearen figura sortzea; udalerriko programazio kulturala prestatzea, taldeekin harremanetan egotea eta Laudion bideratzeko jarduera kulturalak bilatzea izango lirake Kultura kudeatzaile horren egitekoak.

#### **Laudioko jaialdi kulturala**

Laudion erreferentziazko jaialdi kultural bat antolatzea; askotariko joera artistikoetako jarduerak edukiko lituzke, identitate propioa izan beharko luke eta eskaintza erakargarria izan beharko luke Laudiorako nahiz inguruko udalerrietarako.

#### **Kulturen azoka Laudion**

Elkarteen, talde kulturalen, bertoko sortzaileen eta gainerako eragileen lanak erakusgai ipintzeko eta dibulgatzeko erreferentziazko data bat definitzea; egun horrek erreferentzia izan beharko luke eragile kulturalak eta herritarrak elkarrekin harremanetan jartzeko.



## KOMUNIKAZIOA ETA KONTSUMO KULTURALA

**Lortu nahi den helburua da programazio kultural ireki eta irisgarria sortzea, audioarren gustuetara egokitua, askotarikoa eta diziplina desberdinak barne hartuko dituena.**

### *Lantzeko zenbait proiektu...*

#### **Kultura agenda: webgune berria**

Kultura agenda berria sortzea, eta udal webgunean horretarako atal espezifiko bat sortzea, udalerriko programazio kulturala jasotzeko eta taldeek beraien jarduerak iragarri ahal izateko.

#### **Kultura agenda: MUPI-ak**


MUPI-ak aprobetxatzea eta iragarki-taula berriak instalatzea udalerriko puntu eta auzune desberdinetan udalerriko eskaintza kulturala hedatzeko.

#### **Ondareaaren hedapena**

Ekimen desberdinak egitea herritarrei gure kultura audioarraren elementurik esanguratsuenak helarazteko (Laudioko espazioak, tokiko berbak, pertsona ezagunak, ohiturak, jaiak eta ospakizunak, etab.).

#### **Hedatze taldeak**

Laudioko sektore kulturalarentzako albisterik garrantzitsuenak eta alderdi interesgarriak hedatzeko zerbitzua martxan jartzea teknologia berriak erabilia (hedatze taldeak Whatsapp-en, *newsletter* bat, taldeak sare sozialetan, etab.).



## AZPIEGITURA KULTURALAK

Lortu nahi den helburua da herrian azpiegitura kultural aproposak izatea, hala programazio eta erakusketa kulturalak bideratzeko, nola bertoko talde, elkarte zein eragileek topagune eta sorkuntza-leku gisa erabiltzeko, erabilera-eredu optimo eta egokiaren bila.

### Lantzeko zenbait proiektu...

#### Antzokia eraikitzea

Laudio Antzokia eraiki eta irekitzea; askotariko diziplinen programazio kulturalerako espazio estrategikoa.

#### Kultura Etxea berritzen jarraitzea

Kultura Etxea eraberritzeko prozesuarekin jarraitzea, eta, horretarako, elkarte eta eragile kulturekin batera definitzea barrualdeko espazioak banatzeko proiektua (erakusketa aretoak, batzar aretoak, sorkuntza aretoak eta abar), herriaren beharretara ahalik eta hobetoen moldatzeko.

#### Lamuza parkea espazio kultural gisa

Lamuza parkea berreskuratzea aire zabalean programa kulturalak bideratzeko espazio gisa, eta, horrez gain, dauzkan azpiegiturak aprobetxatzea, proiektua herritarrekin nahiz Kulturaren sektorearekin batera definituta, partizipatiboki.

#### Espazioak lagatzeko ordenantza

Espazio soziokulturalen lagapenaren eta erabileraren ordenantza arautzailea martxan jartzea, espazio horien erabilera baldintzak eta -arauak zehazteko, eta ordenantza eguneratua edukitzea eskura dauden azpiegituren nahiz uneko aukera teknologikoen arabera.

#### Espazioak erreserbatzeko aplikazioa

Talde kulturek espazio kulturalak *online* erreserbatu ahal izateko aplikazio berria martxan jartzea.

#### Inbertsioen plana

Espazio kulturaletan inbertitzeko hamabost urteko plana sortzea, Laudioko garapen kulturean inpakturik handiena duten inbertsioak planifikatzeko.

#### Azpiegituren katalogoa

Eragileek erabil ditzaketen azpiegituren eta espazioen katalogo eguneratua sortu eta argitaratzea, espazio soziokulturalen lagapena eta erabilera arautzeko ordenantzan xedatutakoarekin bat.

05.


Esku-  
hartzeen  
egutegia


# 05.

## Esku-hartzeen egutegia

Jarraian, Kultura Plan Estrategikoaren barruko ekimen desberdinak martxan jartzeko egutegiaren zirriborroa jaso da.







06.

Planaren  
jarraipena



Laudio Udalak kudeatuko du teknikoki estrategia, Kultura, Jai eta Kirol Zerbitzuaren bitartez, nahiz eta martxan jartzea, garapena eta ebaluazioa sektorearekin batera egin, Laudioko Kultura Kontseiluaren bitartez.

Horiek horrela, tresna desberdinak baliatuko dira estrategia behar bezala bideratzen dela bermatzeko:

### Jarraipen-batzorde teknikoa



**LAUDIO UDALA**

- Estrategiaren barruko helburuak betetzen direla zaintzea.
- Proiektu eta ekimenen ezarpen mailaren jarraipena egitea, eta Kultura Kontseiluari horren berri ematea.
- Esku-hartzeen abiarazte teknikoa koordinatzea.
- Desbideratzeak aztertzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Sektoreko eragile guztien arteko elkarrizketa eta parte hartzea koordinatzea.
- Planaren betearazpenari buruzko txostenak egitea aldizka.
- ...

### Laudioko Kultura Kontseilua



- Planari dagokionez egindako aurrerapenak partekatzea.
- Estrategian jasotako proiektuak definitu eta zehaztea.
- Sektorearen beharrak ezagutzea eta, ondorioz, proiektu eta ekimenen baliozkotasuna.
- Kontuan hartu beharreko ekarpenak eta elementu estrategiko berriak jasotzea.
- ...



**LAUDIO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE LLODIO